

bada alako gisan
 kantatu zubela:
 eta errabiz edo
 errabirik gabe,
 egiñikan legoya
 belearen jabe,
 maitatutzen zitzaion
 igortziyaz asi,
 egin balio gisan
 kantuz zenbait grazi,
 eta uste gabean
 edo naita ala
 lepoan estuturik
 sobraazkazala

kulpa asko duben bat
 urkatzen dan gisan,
 bere azkazal pean
 itoa izan zan.

.
 Onek erakusten du
 kontu aundiz jakiñ
 bear dala ibiltzen
 animaliyakiñ;
 bi ankekoak asko
 dirala gurekiñ,
 eta ez jostatzeko
 nola nai berakiñ.



ARIYA ETA OTSOA

Ariya jaten ari
 zala belardiyan,
 arbolari lotuba
 zegoala mendiyen,
 otsoak ikusirik
 ala, apartera,
 esan zuben beregan
 orainchen det era,
 jankai oso guriyaz
 egiteko jabe,
 bada ariya dago
 libertade gabe;
 eta arrimaturik
 bere ondorañon,
 sokak luze guziya
 zuben tokirañon,

aurrecho sartu ta jo
 ta bota etzezan,
 edo apartetikan
 engañatu zezan,
 zankoren bat ozkazoz
 autsi ta galtzeko,
 eta gero gozoro
 ito ta jateko,
 esan zion:—egun on;
 ni naiz sendagiña,
 nainukena sendatu
 zuk daukazun miña;
 bada esan dirate
 ongi etzaudela,
 egun eta gau tripa—
 ko miñez zaudela;

bañan ariyak ura
 nor zan jakiñikan,
 eta etzeramala
 naiera onikan,
 abiyaduran salto
 batez eten soka,
 eta gogor otsoa
 kopetean jota,
 botarikan bueltaka
 korderikan gabe,
 egin zan libertade

berearen jabe.

.

Ontaz kontura zerbait
 erortzen bagera,
 azkar askori zaie
 gertatzen au bera;
 ustez daukatenean
 baliatze era,
 tiroa kuletratik
 oi zaie atera.

RAMÓN ARTOLA.

DOLORA MARÍTIMA

- ¡Ah del puerto! ¡Ah de la ría!
 —¿Qué tal seña lanza?
 —Una alma.
 —¿Trae avería?
 —Ninguna.
 —¿Qué mercancía?
 —Ilusiones y esperanza.

Entró la nave al momento,
 Y al cabo de algunos años,
 Volvió á dar su vela al viento,
 Llevando por cargamento...
 ¡Pesares y desengaños!